




Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas


PARTZELARIOAREN ARGITALPENERAKO TRESNARI BURUZKO LAGUNTZA

Partzelarioaren argitalpenerako web tresna bere goikaldean duen tresna barraren bidez kontrolatzen da.



Tresna barra 1920x1200 pixeleko bereizmenean

Barra honen tresnak zabaldurik agertzen dira 1366x768 pixeleko gutxieneko bereizmena duten pantailetan. Muga horretatik beherako bereizmena erabiliz gero, tresna taldeak trinkotu egiten dira pantailan sartu daitezkeen. Ez da gomendagarria 1024x768 pixel baino gutxiagoko bereizmenarekin lan egitea.






Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas

Tresna barra barnean dauden tresna-taldeak:

- **Aukeratu:** Aukeratze tresnarekin mapan objektuak nabarmendu daitezke, berauek urdinez koloreztatuz. Objektu bat baina gehiago aukera daitezke, aukeratu nahi diren objektuen gainean klik egiterakoan 'Kontrol' tekla sakaturik badugu.



Partzela anitzen aukeraketa


- **Nabigazioa:** Edozein GIS nabigatzailetan ohikoak diren tresnak ditu talde honek. Mapa zein eskalatan ikusi ezartzeko aukera ere ematen du, bereziki interesgarria eskala konkretu batean planoak lortu nahi izanez gero.
- **Neurketak:** Neurketak hiru modutan egiteko aukera dago
 - **Distantzia:** Maparen gainean zenbait puntu markatuz neurtu daitezke distantziak. Momentuoro azken tarteunearen luzera baita tarteune guztien batura ikusi ahal izango da. Neurketari klik bikoitza eginez ematen zaio amaiera.
 - **Azalera:** Mapa gainean neurtu nahi den azaleraren ertzak markatuko dira polígono bat marraztuz. Momentuoro poligonoaren perimetroa eta azalera egongo dira ikusgai. Neurketari klik bikoitza eginez ematen zaio amaiera.
 - **Aukeraketa:** Aurretik mapan objekturen bat ala gehiago aukeraturik egonez gero, bere/euren neurketa egingo da.




Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas

Kasu guztietan, neurketa egin ostean, neurketaren emaitza leihoa irekiko da neurturiko objektuaren datuekin eta bere geometria kolore gorriko tramarekin nabarmenduko da mapan. Neurketa baten gainetik pasaz gero, argibide mezua azalduko beronen datuekin.



Azaleraren neurketa (marrazte askea)



Aukeraturiko objektuen neurketa (hirilur partzelak)

Nabarmenduriko neurketak mapatik kentzeko beharrezkoa da “Ezabatu” botoia sakatzea neurketen tresna taldean.

- **Tresnak:** Tresnen menuak ondorengo baliabideak ditu:
 - **Geruzak:** Geruzak aktibatzeko zein desaktibatzeko aukera ematen duen geruza zerrenda agertatarazten du aplikazioaren ezkerraldean. Bertan ageri diren geruzak honako hauek dira:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas


HIRI-LUR PARTZELARIOA	
Sarea	Utm koordinatueta oinarrituriko sarea (kuadrikula)
Sarea kodea	Utm koordinatueta oinarrituriko saretaren testuak
Katastro zonen testuak	Zona katastralen zenbakiak
Katastro zonak	Zona katastralen mugak
Hiri-lur partzelak	Hiri-lur partzelen mugak
Katastroko erreferentziak	Hiri-lur erreferentzi katastralak
LANDA-LUR PARTZELARIOA	
Landa-lur Azpi-partzelak	Landa-lur azpi-partzelen muga
Landa-lur Partzelak	Landa-lur partzelen muga
Landa-lur Azpi-partzelen Erreferentziak	Landa-lur azpi-partzelen erreferentziak
Landa-lur Partzelen Erreferentziak	Landa-lur partzelen erreferentziak
Landa-lur Poligonoen testuak	Número polígono rústico
Landa-lur Poligonoak	Landa-lur poligonoen mugak
ERAIKUNTZAK	
Eraikuntzak zain	Katastroan alta eman edo baloratu gabe dauden eraikuntzak
Osagarriak zain	Alta eman edo baloratu gabe dauden osagarriak
Atari zenbakiak	Atarien zenbakiak
Egungo eraikuntzak	Alta emanda edo baloratuak dauden eraikuntzak
Egungo eraikuntzen testuak	Eraikuntzen izenak
Eraikuntza osagarriak	Alta emanda edo baloratuak dauden eraikuntzen medianerak eta txabolak
Lur azpiko eraikuntzak	Lur-azpian dauden eraikuntzak
Erorpen	Erorpen egoeran edo antolamenduz kanpoko eraikuntzak
OSAGAI OROKORRAK	
Eraikiko diren osagaiak	Egingo diren osagai orokorrak: espaloiak, bideak...
Osagai orokorrak	Osagarri orokorrak: espaloiak, bideak, errekek...
Testu orokorrak	Testu orokorrak, kale izenak...
Errepideak	Errepideen ibilbideak
URA	
Ibaiak	Ibaia eta errekek
Itsaso-urtegia	Urtegiak eta itsasoa
ORTOARGAZKIAK	
2004 ortoargazkia	2004ko airetiko argazkia ortorektifikatua
2010 ortoargazkia	2010ko airetiko argazkia ortorektifikatua
TALDERIK GABEKO GERUZAK	
Auzoak	Auzo izenak
Trenbideak	Trenbide sarea
Hiri-lur eremua	Hiri-lur eremua
Herri muga	Herri mugak
Altimetria	Altimetria 25m



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas

- **Inprimatu/PDF:** Ikusgai den alderdia eta eskala erreferentzia hartuz dokumentua sortzen du PDF formatuan. Lortzen den dokumentuan ikusgai den azalera ez da pantailan ikusten denaren berbera izango, pantailaren tamaina erabiltzailez-erabiltzaile alda daitekeelako, ez horrela orrialdeen tamaina eta eskala.



- **OHARRA:** Inprimatzerakoan eskala errespetzea bermatu nahi izanez gero, inprimatze leihoan eskalatze aukerak bertan behera utzi behar dira, inprimagailuak dokumentuaren tamaina alda ez dezan.
- **Bilatu:** Aplikazioak honako elementu katastralen bilaketa du barnean:
 - Erreferentzia Katastrala (Hirilurra eta Landalurra)
 - Kalea
 - Zona Katastrala
 - Eraikinak






Gipuzkoako Foru Aldundia


Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas

Informazio katastrala Argibide Mezu bezala erakusten da kurtsoa partzelen gainean jarrita.



Erref Kat.	Kalea	Zk.	Let.	Zona	Azpi.	Inf. Kat.
6162104	AKELARRE	020		031	E	Ikusi
6162104	AKELARRE	021		031	E	Ikusi
6162104	AKELARRE	022		031	E	Ikusi
6162104	AKELARRE	023		031	E	Ikusi
6162104	AKELARRE	024		031	E	Ikusi

Hirilur partzela baten informazioa



Erref Kat.	Azalera	Inf. Kat.
02-065	26.540 m ²	Ikusi
Azpi-partzelak		
02065a	15.077 m ²	
02065b	11.463 m ²	

Landalurr partzela baten informazioa

Erreferentzia katastral bakoitzari dagokion informazio zehatza ikusteko sakatu “Ikusi” esteka eta katastroaren webgunea irekiko da leiho berri batean partzela horri buruzko informazioarekin.